

Lekorne

Aurkibidea

Udalerria: Lekorne

Sarrera



Lekorne Lapurdiko ekialdeko udalerria da, Nafarroa Beherearekiko mugan kokatua. Honako udalerrak ditu mugakide: Lekuine iparraldean; Hazparne ipar-mendebaldean eta Makea mendebaldean. Ekialdean Nafarroa Behereko udalerriekin egiten du muga: Heleta, Ortzaize eta Irisarri hego-ekialdean eta Aiherra ipar-ekialdean. Argazkian Lekorneko eliza ([Wikipedia](#)tik hartua).

- **Biztanleak:** 845
- **Euskaldunak:** %22,98

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **15**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **15**

Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak

Albert Dubois (1932-2021)



Albert Dubois Lekornen sortu zen 1932ko otsailaren 19an. Zurgintzan formatu zen. Gabadiko zurgin batekin hasi zen lanean eta haren alabarekin ezkondu 1957an. Ezkontza hartarik zazpi haur sortu ziren. Albert zurgina izan zen bere bizi guzian Gabadin eta kantonamenduko herrietan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Zurginen formakuntza 1950 hamarkada arte (LKR-001/001)

Aprendizgoan ikasten zuten beren lana zurginek eta mahasturuek. Nagusi baten etxean egoiten ziren, Albert Dubois egon den bezala bere sorterriko zurgin baten etxean, Lekornen. Gero etorri ziren etsaminak pasatzeko legeak. Albert-ek ere, nagusiak gomendaturik, pasatu zuen zurgin etsamina Baionako zentro berezi batean. Hortik landa, mahasturigintza ere ikasi du, bi urtez, beste nagusi baten etxean.

2. Zur mota desberdinak (LKR-001/002)

Albert Dubois-k, beste zurgin frango bezala, haritza, gaztaina, zurzuria eta zuharra erabiltzen zuen nagusiki. Zura oihanean hautatzea lehen lana zen, gero behar zen zuhaitza aurtiki, tiratu, segatu eta idorrazazi. Bost zentimetroko taulak 5 urte behar zituen ontsa idortzeko. Baziren ere hari gaixtoko zuhaitzak eta hari onekoak (eztiagoak).

3. Arbolen aurtikitzea eta karreatzea (LKR-001/003)

Oihanean arbola hautatu eta, mozten zen arpanarekin eta aizkorarekin, eta aurtikitzen. Bi gizon behar ziren arbola mozteko. Gero zura oihanetik tiratu behar zen : laborari batzuen (itzainak deitzen ziren hauek), behi edo idi

pareari arkusa lotzen zen eta honi esker zura karreatzen. Berantago, 1957 inguruan, trakturrekin hasi ziren zur tiratzen.

4. Arbolen lantzea, karreatzea eta altxatzea 1950 hamarkada arte (LKR-001/004)

Arbola karreatu aintzin, tokian berean lantzen zuten : zatitan moztu, zati bakoitzari azala kendu, kordela batekin erditik markatu, eta markaren bi aldetatik ezpalak jauzarazi forma karratu baten emateko. Zur peza horiek etxera eman eta, erabiltzeko tenorean altxatu behar ziren. Hori beste lan bat zen oraindik hanbat indar, gizon eta teknika eskatzen zuena. Altxatzea ahuntza deitu tresna baten laguntzarekin egin zen.

5. Zurginaren lantokia (LKR-001/005)

Garai hortan, zurgina joaiten zen lan egitera jenden etxeetara, lana zen tokietara, behar beharrezko tresnak berekin eramanez.

6. Zurginak etxe egiten hasi (1960 hamarkada) (LKR-001/006)

1960a aintzin, etxe gutti egiten zen : zaharregiak zirenak botatzen ziren eta besteak zaharberritzen. 1965 inguruan hasi dira zurginak etxe egiten. Harginak murrua abiatzen zuen (lehenbiziko paretak brikaz ziren), horren gainean zurginak zoletak (edo zapetak) ezartzen zituen, bizkarra burutik buru ematen, hari astoak eta karrerak lotzen, eta ondotik solibak (gapiruak) eta latak, lata hauen gainean teilak pausatzen zirelarik.

7. Zuraren lotzeko molde berezi batzu (LKR-001/007)

Badira bereziki bi teknika : bat zurginek frantsesez « le trait de Jupiter » deitzen dutena, bestea mihizatzea (le tenon-mortaise). Lehenbizikoari esker bi zur peza handi elgarri lotzen dira oraino handiago baten ukaiteko. Bigarren teknikak zur mota oro lotzen ditu, mihia ahoari lotuz kabila batzueri esker.

8. Teilatuak (LKR-001/008)

Teila egileak baziren. Albert Dubois Ilharreko gizon batek furnitzen zuen : honek lur buztineko teilak moldatu eta, kisu labean erretzen zituen.. Teilen altxatzea gizonak egiten zuten bizkarrez zurubian goiti edo, teilatua gora bazen, teilak bat besteari botatuz (lau lagun behar ziren hortarako). Teila kopa erabiltzen zen garai hartan. Teilatu gehienak bi maldetakoak ziren, edo ere lau karrekoak.

9. Arkitektoaren eragina (LKR-001/009)

Arkitektoak, etxegintzan sudurra sartu duenetik, errexu du zurginaren lana. Teilatu egiteko teknikak hobetu dira, etxearen planak eginik ukaitea abantail bat zen

10. Bezeroarekilako harremana ; aurrekontua (LKR-001/010)

Albert Dubois aurrekontuak proposatuz arizan da etxe egiten. Aurrekontua onartua zenetik, lana ahal bezain laster egiten zen. Aurrekontuak aldatu du zurginaren lanmoldea eta izpiritua : hau ez da gehiago egunka pagatua bainan aurrekontuaren arabera.

11. Nekazaritzako eraikuntzak eta lantresnak (LKR-001/011)

Zurginek laborantxaren eboluzioa segitu dute, aterbeak(hangar), barrukiak, arto idortzekoak, oilategiak eta urdaitegiak eraikiz. Haste hastetik nekazarien lantresnak ere egiten zituzten : orgak (zur idorrarekin, gehienetan intzaurra, batzutan haitza, 8 egun behar zuten erroten egitea kondutan hartu gabe), dupak edo zuhanak.

12. Zurginaren berezitasuna (LKR-001/012)

Albert Dubois-k, bere 75 urtekin, pentsatzen du zurginaren berezitasuna langiletasunak egiten duela : lana maitatzea, adreta izaitea, buruz aritzea, tenorei ez begiratzea.

13. Zurginaren lan banka eta hurbileko tresnak (LKR-001/013)

Laneko banka bazuen zurginak bere sahetseko estokarekin (zura tinkoan atxikitzeko lantzen zuenean) edo gaineko bailetarekin (honek ere zura tinkoan atxikitzen zuena bainan banka gainean). Hanbat eskutresna hurbil hurbilean zauzkan zurginak : marteilua, trukesak, itzeak, turnabisak, aniketak, metra eta arkatza, xixelak, xiñola, bidebarkina, junten egiteko tresna (boite à onglets), sega etabar.

14. Zurginaren beste eskutresnak (LKR-001/014)

Izari guzietako teatualiak bazituen zurginak bai eta ere truskina, jorraia (l'herminette), taulen mihistatzekoa, taula bihurrien xuxentzekoa, eskuaireia, konpasa (borobilak markatzeko), nibela, uztaien izarien hartzeko tresna, sega desberdinak (arpana arbolak mozteko, sabre sega, sega alemana) etabar. Albert Dubois bezalako zurgin batzu segalari bezala aritzen ziren herriko bestetako indar jokoetan.

15. Zurginaren lantresna berriak 1960 etik hara (LKR-001/015)

Zurginaren lan egiteko moldea aldatu 1960 etik goiti, eletrikazko tresna berriekin : taula bihurrien zuxentzekoa, behar den loditasunean eta largotasunean ematekoa, luzean eta xuxen moztekoa, xingolarekilako sega (scie à ruban), mihi eta ahoen egitekoa etabar.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com